Maizpide euskaltegi-barnetegi berria Lazkaon

Zutabe

Aurtengo apirilaren 23tik aurrera euskaltegi berri bat dugu Euskal Herrian: Lazkaoko Maizpide euskaltegia. Euskaltegi berria eta barnetegia, HABEk lehendik Hondarribian duenaren ildotik sortua.

Egun seinalea izan zen apirilaren 23a Lazkaon, HABE aldizkariak 124. alean berri eman bezala. Hara bildu ziren hainbat eta hainbat agintari eta euskalzale, euskararen deiari erantzunez: Jose Antonio Ardanza Lehendakaria, Joseba Arregi Jaurlaritzako Kultur Kontseilaria, Mari Karmen Garmendia Hizkuntz Politikako Idazkari Orokorra, Aita Villasante Euskaltzain-burua; eta baita, besteak beste, Jose Mari Lete Gipuzkoako Foru-Aldundiko ordezkaria eta HABEren Zuzendari-Batzarkideak ere, Lazkaoko agintari, Maizpide Euskaltegiko Zuzendari den Dionisio Amundarain eta Joxe Joan G. de Txabarri HABEko Zuzendari Orokorrarekin batera.

Euskaltegia bedeinkatu eta alfabetatze- eta euskalduntze-lanean ari izandakoen omenez oroitohola jendeaurreratu ondoren, euskaltegi-barnetegi berria erakutsi zien Dionisio Amundarainek gonbidatuei. Gero ekintza akademikoa egin zen bertako Areto Nagusian: Joxe Joan G. de Txabarriren aurkezpena, Dionisio Amundarainen hitzaldia, Jose Antonio Ardanza Lehendakariaren jarduna eta Lazkaoko Aita Beneditarrei eta Rikardo Arregiren familiari zilarrezko plaka-agiria banatzea eta, bukatzeko, HABEk eginiko «Maizpide» bideo-zintaren proiekzioa.

Era berean egun horren inguruan kultur aste bat ere ospatu zen, HABEk, Goiherriko Euskal Eskolak eta Lazkaoko Udalak eratuta, honako ekintza nagusi hauekin:

- Euskaldunberriei buruzko bi saioaldi ETBn: «Ezbaian», apirilaren 18an, eta «Laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik», 26an.
- Prentsaurrekoa eta Andoni Sarriegiren hitzaldia, 19an, hau «Goiherriko Euskal Eskolaren historia» gai hartuta.
- Hiru topaketa: Goierriko Ikastetxeetako zuzendari eta irakasleekin, 20an; Hondarribi eta Lazkaoko Barnetegietako ikasleena, 21ean; eta Lazkaoko Barnetegiko ikasleei urtean zehar hurbilagotik lagundu izan dieten familiekin, 22an.
- Bi mahainguru: Ikastetxeetako or-

dezkariekin, 20an, «Haurren euskararen erabilera» gaiari buruz; eta Lazkaon ari izandako euskaldunberriekin, 21ean.

- Haurrentzako filmeak, Ganbara musika-taldearen saioa...

Halaber, apirilaren 19tik 25era bitartean zabalik egon ziren egunero Euskal Hitz erakusketa Maizpide Euskaltegian eta Euskal liburu zaharrena Aita Beneditarren komentuan. Baita ere, egun horietan kaleratu zen HABE aldizkariaren 123. ale berezia, Maizpide Euskaltegiari eskainia.

Kultur asteko eta zabaltze-eguneko honako lau dokumentuok dakartzagu hona:

1. Prentsaurrekoan kazetariei banatutako idazkia.
2. Andoni Sarriegiren hitzaldia.
3. Dionisio Amundarainen ekintza akademikoko hitzaldia.
4. Lehendakariaren hitzaldia.



1. PRENTSAURREKOAN KAZETARIEI BANATUTAKO IDAZKIA

1. Maizpide, bi apusturen emaitza

Maizpide bi apusturen emaitza da: HABErena eta Goiherriko Euskal Eskolarena.

1.1. Haberen hiru apustuak

Hiru apustu egin zituen HABEk bere sorreran (1981eko irailean) helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko eskariari, behar eta premiei erantzutearren:

—Euskaltegien sarea sendotzearen aldekoa.
—Irakaslegoa profesionaltzearen aldekoa.
—Ikastaro trinkoen aldekoa.

a) *Euskaltegien sarea sendotzen*

Bi ardatzen inguruan ari da HABE euskaltegien sarea sendotzen: Euskaltegi Publikoak zabaltzen eta Euskaltegi Pribatuak indartzen. Gaur egun 44 Euskaltegi Publiko daude Euskal Autonomi Elkartean eta 20 Euskaltegi Pribatu homologatu ditu HABEk.

b) *Irakaslegoa profesionaltzen*

Irakasle zaharrak eguneratzea, irakasle berriak sortzea eta trebatzea, irakaslegoa lan-tresna egokiz hornitzea, euskararen irakaskuntza lanbide eta ogibide bihurtzea... Horiek dira askoren nahia eta ametsa, horiek euskararen beharrak. Eta ametsa egia bilakatzen ari da. Gero eta haundiagoa da euskara-irakasleen kopurua, eta gero eta profesionalagoa irakasle-taldea.

c) *Ikastaroak trinkotzen*

Edozein hizkuntza ikasteak ezinbestekoa du gutxieneko ordu-kopuru bat. Eta zenbat eta ordu gehiago eman, hainbat eta azkarrago ikasten da. Bestalde, ikastearen moteltzeak ikasketa luzatzea, ikaslea aspertzea eta ikasteari uztea dakar sarritan berarekin.

Horiek horrela, HABEk egunean bost orduko ikastaroak martxan jarri zituen eta ordu t'erdietik beherakoei ez die diruz laguntzen.

Barnetegiak sortzea ere bide horretatik doa: euskaltegi horietan ikasleak egun osoa euskaraz bizitzeko aukera izaten du. Horrek azkartu eta sendotu egiten du euskara ikastea.

1.2. Goiherriko Euskal Eskolaren apustua

Goiherriko Euskal Eskolak, 1981ean, proposapen berezi hau jaso zuen HABEren aldetik: ordurarteko bere zerbitzubidea HABEren sarean sartzekoa.

Zergatik hori? Arrazoi asko tartekatu ziren inondik ere. Euskal Eskolak historia luzea egina zuen jadanik, historia ezaguna, historia aberatsa.

Historia luzea, 1952-1953an Elbira Zipitria beneditar gazteak alfabetatzen ibilia zen, eta hauek, beren aldetik, berehala hasi ziren hazia zabaltzen: Lazkaon, Ordizian... 1974etik aurrera indar berezia hartu zuen arbolatxoak, eta 1975ean Udako Lehen Ikastaroa ospatu zen beneditarren monastegian. Handik aurrera haziz joan zen, bere nortasun propioa hartuz. Hala, Udako Lehen Ikastaroan (1975ean) 22 ikasle izan baziren, 1976an 75 inguru izan ziren, eta 1977an 150, eta gerozkoetan 400dik gora. Eta barnetegi gisako udako ikastaro horietaz gain, ordukakoek ere egundoko garrantzia izan dute historia horretan.

Historia ezaguna. Oso garaiz erabaki zuen Euskal Eskolak eraginkorki jokatzea; esaterako, horrelaxe dio 1977ko Azaroko «Goiherri Euskal Eskola. Antolaketa eta Arauketa» delako txostenak. Eta jarrera horrek ikasle asko eta ugariri erasan dio; Euskal Herri osoko ikasleri, mota era maila guztitakoari; Euskal Herrikoari ezezik, atzerritar asko ere bai. Bestalde, irakasle gisa ere alde askotako jendea ibili izan da; tartean, eta esaterako, haseratik HABEren Zuzendaritzan diharduten Joxe J.G. Txabarri, Pello Esnal, Jexux Argiñarena, e.a.

Historia aberatsa. Ikasle-kopurua haundiez gain, irakasle asko eta asko moldatu da bertan. Metodologiaz lan asko eta asko egin da. Bertako material didaktikoa urte askotan ibili izan da eskutik eskura eta euskaltegitik euskaltegira. Ez du mugatu izan bere lana klase barrukora; esperimentu bat baino gehiago egin izan du klasez kanpoko ekintzak frogatuz; besteak beste, euskaraz irratira eramandako lehen nobela erakunde horrek prestatua da.

Guzti hori izan zen, noski, 1981 ean aipatutako proposapena egitera

HABE bultzatu zuena. Eta eraginkortasunaren alde egindako aukerak eragin zion Euskal Eskolari baiezko borobila ematera.

Gaurregun, Maizpide Elkarte Kulturala sortu bada, eta Barnetegiaren erabilera eta erantzukizuna berorri eman bazaio, euskararen alde eraginkorki jokatzekotan eman zaio. Eta asmo horrekin hartu dute lan hori Maizpide Elkarte Kulturaleko langileak.

2. Maizpide, egia bihurtu den ametsa

Lazkaok badu azkenean hainbeste amestutako euskaltegi-barnetegia. Ez dago Goiherriko Euskal Eskolak orain arte izan duen azpiegituraren parean jartzerik. Maizpide Euskaltegiak, nolabait esateko, etorkizunaren aldeko apostua egin du, ez bait da bidezkoa euskara beti erdipurdiko bitartekoen mendean bizitzea.

Etxea hiru solairutan banatuta dago.

a) Behekoan zerbitzuak daude: jangela, sukaldea, liburutegia, hizkuntz laborategia, musika-gela, areto nagusia, jolas-gela, telebista-gela, eskulantegia, argazki-laborategia eta abar.
b) Lehenengoan ikasgelak daude, 150 ikaslerentzat egokituak.
c) Bigarrenean, berriz, logelak, bi, hiru zein lau lagunentzakoak, ikasleek mahai eta aulki bana dituztela. Denera, 124 ohe daude, nahiz eta HABErekin sinatutako hitzarmenak 90eko ikasle-kopurua aipatu. Hortaz, beste 30-34 toki horiek beste erakunde batzuen eskakizunei erantzuteko dira, beti ere euskararen aldeko ekintzetarako izan behar dutelarik.

• Liburutegia

Irakasle zein ikasleentzat prestatua. Irakasleek glotodidaktikako liburu-mordoska izango dituzte (600--1.000 inguru) hemen, kontsultak eta egiteko. Maizpide Euskaltegiko irakasleez gain, inguruko Udal Euskaltegietako irakasleentzat ere irekia dago. Bestalde, ikasleek ere badituzte beren mahaiak areto honetan, ariketak eta egiteko.

• Hizkuntz laborategia

Hogeiren bat lagunentzako kabinak ditu hizkuntz laborategi honek, ikasleek bakarka lan egiteko. Entzumena zein mintzamena lantzeko ariketa gidatuak egingo dituzte hor.

• Bideo-gela eta areto nagusia

Antzerki eta bideo-emanaldiak, kantaldiak eta antzeko jardunaldietarako aproposa da areto hau. Baita bilerak eta egiteko ere. Pantaila haundia dauka eskenategian, bideo--pelikulak edo dena delakoa proiektatzeko. Guztira, 80-90 lagunentzako tokia dago beheko eta goiko pisuen artean.

• Musika-gela

Musika-gela ikasleak lasai egoteko tokia da. Ikasleak, musikak gozatutako gela honetan, ariketak eta egin ditzake horretarako ipini dituzten mahaietan. Besterik gabe, musika entzuten egotea ere badago. Dena dela, ez da nork bere gustoko musika jartzerik izango. Musika-jartzaile bat izango da. Bestalde, diaporamak eta proiektatzeko pantaila ere bada bertan.

• **Ikasgelak**

Hamar ikasgela daude guztira, haundiagoak batzuk, txikixeagoak besteak. Nolanahi ere tokirik gehienetan euskarazko eskolak emateko erabili ohi direnak baino dezente haundiagoak. HABEren eskakizunen arabera 12-15 lagunentzat dira gela hauek. Hortaz, logeletan kabitzen direnez gainera, kanpo-ikastaroetako ikasleek ere ihardungo dute hemen euskara ikasten.

• **Jangela**

125-130 bat lagun kabitzen dira jangelan. Mahaiak elkarren segidan daude, arrazoi didaktikoak direla eta. Gela mahaika bereziz bero, ikasleak beren betiko lagunekin elkartzen dira, besteekiko hartuemanak mugatuz. Eta honetan, aldiz, komunikazioa zabalagoa da, mugarik ez bait dago. Bestalde, jangela megafoniaz hornituta dago, abisuak eman eta tarteka bertso-saioak eta egin ahal izateko.

Ez da falta sukaldean jana maneatzeko tresnarik, ezta sukaldari trebe-rik ere. Izan ere, nola ikasi euskara tripa hutsik?

3. Maizpide, urrats bat gehiago

Lazkaon eraiki du HABEk Euskaltegi berria, Gipuzkoako Goierrin Maizpide Barnetegia.

Lazkao aukeratzean, euskal giroa izan du kontuan HABEk, herri honek urteetan euskarari emandako arnasa, Aita Beneditarrek eskainitako babesa, Goiherriko Euskal Eskolak irabazitako itzala...

Maizpide Barnetegia, Hondarribiko Habe Euskaltegiaren ildotik sortu da eta euskara ikasteari egun osoa eman nahi dioten helduei dago zabalik, eskarmentu haundiko irakaslegoaren eskuetan.

Euskal Herriko Euskaltegien sareak badu Euskaltegi berri bat (Iaz, 1986-1987an, Elkarte Autonomoan bakarrik 44 Euskaltegi Publiko eta 20 Homologatu ziren).

Euskal Herri osoan euskara ikasten ari diren 60.000 helduek badute ikastetxe berri bat, beti hain berea izan duten txokoan.

2. ANDONI SARRIEGIREN HITZALDIA: GOIERRIKO EUSKAL ESKOLAREN HISTORIA

Izenburua ausartegia bada ere, lantxo honen bidez, hogei eta gehiago urtetan Euskalduntze-Alfabetatzeak hemen izandako garapenaren ikuspegi orokorra eskaini nahi nuke. Orokortasun horrek, ordea, aldi desberdinak izan ditu eta, denboran zeharreko banaketa eginez, ondorengo aldi edo aroak marka litezke:

- Helduentzako Euskarazko Eskolen Sorrera eta Antolakuntza (1965-1970).
- Hedadura eta hazkuntza (1970-1977).
- Goierri esparruko Elkarketa eta Egituraketa (1977-1981).
- Izaera Publikoranzko Urratsak (1981-1988).
- Eta aurrera begira zer?

1. Helduentzako Euskal Eskolen sorrera eta antolakuntza (1965-1970)

—Sorreraurrea.—Beharbada lehendabizi, sorreraz beraz baino lehen, sorreraurreaz hitz egin beharra dago. 1952ko udazkenetik 1953ko udara edo..., ezkutu-antzeko ikastaro bat eman zen Lazkaoko Beneditarren Komentuan. Irakaslea, Elbira Zipitria Andereñoa izan zen. Gaur ez dago neurtzerik emakume ausart eta benetako militante haren lanak emandako fruitua. Ikasleak beneditarrak izan ziren. Denok ezagutzen dugun Dionisiok, adibidez, 23 urte zituen. Giroa, katakunbetakoa. Edozein paper ere gonapean edo galtzapean gordeta erabiltzekoa. Euskara idatziaren zantzurik ere ez gizartean. Giro hori zegoela eman ziren eskola haiek.

1954ean, Elbiraren ikasle izandako Isidro Bastarrika eta Joan Balerdi aita beneditarrek, txandaka, Euskal Aditza irakasteko klaseak eman zizkioten Ordizian laguntalde bati. Herri hartako lehen hazi-ereitea izan zen hura. Gero, 1968an, *Euskal Aditza* liburua argitaratu zuen aita Isidrok.

1962-64 bitartean, Elbiraren ikasle izandako beneditar batzu (lehengoak, aita Antonio Azkue etab.) hasi ziren Lazkaoko beneditarretan zenbait herritarri klaseak ematen. Goizeko 7etan ematen ziren eskolak astean 3 egunetan. Txapela eraztekoa! Herritarrentzako lehenengo ikastaro luzea izan zen hura Lazkaon eta Goierrin. Orduko eragile, irakasle eta ikasleak behar adina sekula eskertuko ez baditugu ere, gaur eta hemen bederen oroitzapen berezia zor diegu.

—1965-66 Ikasturtean, Euskal Gramatikako klaseak antolatu ziren Beasaingo Ateneoan (San Inazio 7an). Eskolak, Lazkaoko Miren Garate Maistrak eman zituen eta, garai hartan irakatsi ohi zenez, euskal gramatika erdaraz. 40 bat ikasle bildu zitzaizkion hasieran. Gero urrituz joan ziren.

—1966-67 Ikasturtearen hasieran, Rikardo Arregi zena etorri zen Lazkaora bere Alfabetatzea esplikatzera eta hastera. 12-14 bat ikasle, lehen beneditarren komentuan ibiliak, zenbait guraso, andereño eta gazte batzu. Jarraian, sortuberria zen Ikastolan eta Domarda Elkartean eman ziren eskolak. *Goierriko lehenengo alfabetatzea* izan zen hura. Xehetasun aipagarria da, Lazkaon, gaur bezalaxe orduan ere, herritarren erakundeak eta herritarrak

euskararentzako bultzatzaile finak izatea.

Ikasturte horretan bertan, 10-12ko gazte-talde bat hasi zen Beasainen Ikastolako Andereño batekin zerbait ikasten.

Gauzak horrela zeudela, Jon Oñatibia zenak, bere *Metodo Radiofonicoa* sortu zuen (Euskara ikasteko lehenengo metodoa) eta Lazkaora etorri zen berori aurkeztera. Beasainen *Oargi* sortuberria zen eta zerbait ikasi nahian hasitako gazte haiek berehala ekin zioten metodo horrekin euskalduntze-eskolak emateari. Lazkaon bertan ere hasi ziren euskalduntze-eskolak antolatzen eta hauek izan ziren *Goierriko lehenengo Euskalduntze-Klaseak.*

Euskal Herriaren Historian lehenengo aldiz, garbi berezita gelditu ziren bada, Euskaldun hiztunentzako *Alfabetatzea* eta ez-euskaldunentzako *Euskalduntzea.* Hau eta Euskara euskaraz irakastea izan ziren hastapen horretako gauzarik garrantzitsuenak, zeren eta ordurarte, ia beti (Elbira Zipitria edo gisakoren batek salbu) gaztelaniaz irakasten bait zen Euskal Gramatika!

—1968an, Patxi Altunaren *Euskera, hire laguna!* metodo argitaraberria probatzen hasi zen talde bat Beasainen.

—1969ko apirilean, Alfabetatze-ikastaro bat eman zen Beasainen. On Manuel Lekuona zena, orduko Euskaltzainburua, etorri zen agiriak banatzera.

—1970-71 Ikasturtean hasi ziren formalki euskalduntze-eskolak Ordizian eta Lazkaon ere inguru horretan hasi bide ziren.

—1972an argitaratu zen *Euskalduntzen* metodoa eta berehala sartu zen halaber euskalduntze-klaseetan.

Beraz, bost urteren buruan, Euskalduntzeko 3 metodo euskaldun argitaratu ziren. Goierrin, berriz, Euskal Eskolen sorkuntza eta gutxieneko antolakuntza burutu ziren.

2. Hedadura eta hazkuntza (1970-1977)

—Zazpiurteko honetan, mugimenduaren hazkuntza eta hedadura etorri zen. Urtez urte haziz edo mantenduz joan zen herri desberdinetako matrikula-kopurua. Beasainen, adibidez, 1971ean 35 ikasle, 1972an 70, ondorengo urteetan 36 eta 48 artean, baina 1976-77an 281 matrikulatu ziren. Goierri-mailan, 1973tik 77ra, 200, 400, 800, 900 inguruko matrikulak metatuz joan ziren. Irakasle berriak ere sortu behar izan ziren nolahala. Irakasle-sortze hau beti landu da Goierriko Euskal Eskolaren inguruan, horretarako Ikastaro bereziak antolatuz etab. eta ordutik hona etengabe jarraitu du prozesu honek. Halere, eta ordukora itzuliz, azpiegitura guztia gainditua gertatu zela esan behar: Irakaslegoa, ikasgelak, antolamendu dena. Matrikulatuetako gehienak Euskalduntzen zihardu ten eta Alfabetatzen oso gutxi zebiltzen. Honek euskaldunon aldetiko axolagabekeria nabarmena azaleratzen du. Euskaldunok, alegia, erdaldunei ikastea eskatzen genien neurri berean ez ginela joan alfabetatzen eta hizkuntza idatzirako prestatzen. Herri txikietara ere irtisi zen Alfabetatzea: Zaldibia, Ataun, etb.

Bada, ordea, aipatu beharreko gertakari bat. 1974ean, 1.go U.E.U.-ko ekitaldian, Joxe Manuel Odriozolak Euskara-Irakaskuntzaren kezka azaldu zuen eta gure Dionisio Amundarain mixiolaritza berri honen beharraz osoro jabetu zen. Horren ondorioak bistan daude, baina

orduan ere berehala hasi ziren ikusten.

—Lazkaon berehala sendotu zen Lazkaoko Euskal Eskola.

—1975eko udan, lehenengo Ikastaro Trinkoa eman zen Lazkaon.

—1977ko Udaberrian, Lazkao, Beasain eta Ordiziako Euskal Eskoletako eta beste herri txikiago batzutako (Gabiria, Segura, etab.) ordezkari batzuk eraginda, *Goierriko Euskal Eskola* sortu zen eta Araudi zuhur bat argitaratu ere bai *(Goierri, Euskal Eskola, Antola eta Arauketa)* erakunde handi horren funtzionamendurako. Bertan, Euskararen irakaskuntzari eta Euskarazko Kulturari eman zitzaien lehentasuna, ideologia guztien gainetik.

3. Goierri esparruko elkarketa eta egituraketa (1977-1981)

—1977ko ekainaren 30ean, Batzarrea egin eta ordurarteko Aurre-proiektua onetsi zen, lehen aipatutako Goierriko Euskal Eskolako Araudia izango zena onartuz. Artean ez zen legezkoa, baina geure arterako bagenuen legea: Araudia. Xedea: Goierri euskalduntzea eta alfabetatzea zen. Hizkuntz Eskola izan behar zuen, beraz, baina Hizkuntzari zegokion Kultura landuz.

Une horretatik aurrera, Goierri, Gipuzkoako AEK-ren zutabe trinko bihurtu zen eta Lazkao, Gipuzkoako Batzarleku bilakatu zen askotan.

—1979an eta 1980an bilera batzu egin ziren AEK-ren barruan eta Erakunde Publikoei euskalduntze-alfabetatzea ofizialki egituratzeko txostenak burutu ziren. Hala ere, ez zen lortu mugimendu osoa zebilen-zebilenean publiko bihurtzea. Goierriko Euskal Eskolak partaidetza garrantzitsua izan zuen txostenak egiten eta beste zenbait planteiamendu aurkezten. Gero, Eusko Jaurlaritzak HABE sortu zuen.

—Matrikula-kopurua, berriz, 1977 inguruko eztanda handi haren ondoren, zertxobait jaitsi eta egonkortu egin zen urteko 500-600 ikasleren inguruan. Arrazoi zenbait izan zen horretarako: Irakaskuntzan Euskara ikasgai gisa sartzea, Lantegietan (CAF, Eztanda, Copreci, etab.) Euskara-klaseak jartzea, etab. Baina asistentzi portzentaiak eta ikastaroak bukatzen zituztenen proportzioak igo egin ziren. Asistentzia kontrolatzen zen, ebaluazio minimo batzu egiten hasi ziren eta guzti horrek seriotasun handia eman zien klaseei.

Bestalde, esan denez, 1975az geroztik, martxan jarri ziren Lazkaon Ikastaro Trinkoak (Uztaileko 3 astetakoak). Hauetako matrikulak berehala jo zuen gorantz eta 500 ikasle inguruko muga iritsirik, Lazkao eta Goierriko azpiegiturak eskain zezakeena berehala ase zuten.

Ikasturtean zehar ere, ordea, hasi ziren Ikastaro Trinkoak. 1980ko udaberrian eman ziren Ikasturte barneko lehenengoak. Lankide-Aurrezkiko langileak izan ziren ikasle. 1981ean Aurrezki-Kutxa Munizipal eta Probintzialekoak. Lehen esperientziak izan ziren, baina guztiz adierazgarriak eta gerorako eredurik egokiena zein zen erakutsi zutenak.

—Borondatezko irakasleez gainera, 1977an hartu zen lehenengo enplegatu finkoa egun osorako. Gero, Ikastaro Trinkoek egitura hori haztea eskatu zuten eta bigarren bat fitxatu zen egunerdirako. Jarraian, bigarrena ere egun osoan lan egitera pasa zen. Esan beharra dago halaber, ofizialki ez bazen ere, Dionisiok

ia egun osoa horretan botatzen zuela burubelarri.

—1981ean *Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartearen* Estatutuak prestatu ziren eta 1982ko otsailaren 26an inskribatu zen Gipuzkoako Gobernu Zibilean. Beraz, legezko Kultur Elkarte bilakatu zen.

4. Izaera publikoranzko urratsak (1981-1988)

—1981ean, HABEk proposamen zehatza egin zion Goierriko Euskal Eskolari: HABEren sarean sartzea alegia. Goierriko Euskal Eskolak, eman beharreko urrats guztiak eman ondoren, Batzarrea egin zuen 1981eko urrian eta bertan Barnetegiaz gainera, arratsalde eta gau ematen ziren Goierri guztiko klaseei erantzuna emateko baldintzarekin, onartu egin zen HABEko sarean sartzea. Horrela, HABEk Barnetegia egiteko konpromezua eta beste herrietako eskolei erantzuna ematekoa bereganatu behar zituen. Urrats hau emateko arrazoi nagusietako bat, hain baliotsutzat eta beharrezkotzat ikusten ziren Ikastaro Trinkoen finantzaketaren bermetasuna izan zen.

—HABEk onartu egin zituen baldintzak eta, Barnetegia egin bitartean, C ereduko kontzertu-sisteman onartu zuen Goierriko Euskal Eskola.

—Bienbitartean, 1981-82 Ikasturtean, Ikasturtean zeharreko Ikastaro Trinkoak era jarraian eta normaltasunez ematen hasi ziren eta 100-120 ikasleko kopurua ibili da hilero-hilero harez geroztik egun osoz Euskara ikasten. Hauek eta Uztaileko Ikastaroek (Lazkaotarrek ondo dakite honen berri), Euskal Herri osoko ikaslegoa Lazkaoratzea ekarri dute eta gaur egun Lazkaoko barnetegia ez da Goierrirako, Euskal Herrirako baino. Horretaz gainera, beste 400-500 ordukako ikasle-kopuruari eutsi dio Goierriko Euskal Eskolak, nahiz eta azkeneko bi urteotan zifra horiek murrizten joan, lan hori AEK-k eta Besaingo Udal-Euskaltegiak ere hartu dutelako.

—HABEk agindua zuen barnetegia egiteko kudeaketak hastean, non egin erabakitzeko ere izan zen gorabeherarik. Goierriko Euskal Eskolak oso garbi zeukan Lazkaon kokatu behar zuela. 1979-83ko Agintealdian zen Ordiziako Udalak, ordea, Ordizian egitea nahi zuen. HABEk eta Eusko Jaurlaritzak, azkenik, ernamuina eta sustraia nahiz herri-giroa non zeuden begiratu eta Lazkaok Ikastaro Trinkoetan zuen ondo irabazitako trebetasuna aitortuz, Lazkaon egitea erabaki zuten.

—1982an HABEk, Ordiziako Udalak eskainiari erantzunez eta Goierrirako hartutako konpromezuari jarraituz, Ordiziako Barrena Jauregian Euskaltegia hornitu zuen Udalak horretarako ipinitako aretoetan. Bertako klaseen ardura, ordea, Goierriko Euskal eskolak izan du gaurdaino, azkeneko urte honetan AEK-k ere klaseak bertan eman arren.

—Baina Barnetegiarenera itzuliz, Lazkaon bertan ere izan zen eztabaidarik, euskaltegi nagusi hori non kokatu behar zenaz. Sei leku desberdin izan ziren kokalekutarako proposatuak. Zenbait gorabeheraren ondoren, azkenean Maizpiden egitea erabaki zuen Lazkaoko Udalak. Beste oztopo bat Lurralde Historikoen Legea izan zen eta Jaurlaritza/Diputazio arteko eskualdaketen artean ibili zen proiektua denboraldi batean.

Gorabehera guzti hauek 1985era arte azken erabakia ez hartzea ekarri zuten, eta dena lau urte inguru atzeratzea.

—Bienbitartean, Euskal Eskolak erritmoa hartu zuen Ikastaro Trinkoetan eta, HABEk finantzatu arren, la handia egin eta buruhauste franko pasa behar izan zuen Lazkaon ahal zituen txokoak bilatzen eta ikasgelatarako, logelatarako, etab. egokitzen nahiz prestatzen.

—Ikastaro Trinkoen esperientziak, 1983tik aurrera, ikasgela-barruko irakaskuntza bakarrik nahikoa ez zenaren susmo nabaria sortu zuen Batzordekoengan, eta herritarren laguntzarekin, kalea eta bizitza bera euskalduntzeko eta kalean euskaraz bizitzeko beste lagungarri batzuren beharra agertu zen. Ideia hori mamitzeko, *Asmo Baten Plazaratzea* deitu egitasmoa aurkeztu zen. *Antsotegi/Gerriko* proiektuaren lehen urratsak ziren. Txokoa, Edaritegia, Liburudenda eta *Antsotegi* etxea, Goierriko Euskal Eskolak 175 bazkideren laguntzarekin eraikitako beste hainbat ekintza dira euskaldunberriak euskalduntze-bidean eta zaharrak alfabetatzekoan laguntzeko eta euskaldun zahar eta berriek elkarri hizkuntz erabilpenaren bultzada eskaintzeko.

Handik urte t'erdira, 1984eko udazkenean, martxan zeuden horiek denak eta 1985eko apirilaren 25ean egin zen prentsaurreko aurkezpen ofiziala. Arazoak arazo, hiru urte hauetan proiektu hori errealitate bihurtu da hein batetan, baina agian ez hainbeste Euskararen kaleko erabilpenari dagokionean. Egindakoa egin beharrekoa zela ikusi da, baina jendeak agian laguntza materiala emateko, Euskara erabiltzeko eta euskalduntze-bidean dagoenari laguntzeko nahiz Kultura Euskaraz lantzeko baino borondate handiagoa duela egiaztatu da. Halere, Euskaldunberrientzako eta lazkaotar askorentzako ere, gutxieneko euskalduntasuna bermatzen duen topaleku bilakatu da eta horrek garrantzi neurtezina du.

—Azkenik, *Maizpide Euskaltegia* ere eraiki eta ekipatu du HABEk. 1986ko urtarrilean, Astotxo egunean, jarri zen lehen harria. 1988ko otsailean amaitu dira obrak eta ekipamenduak. Lehenengo klaseak apirilaren 11n eman dira bertan eta apirilaren 23an izango da inaugurazio ofiziala. 124 ikasle hartu ahal izango ditu Euskaltegi berriak.

—Honetaz gainera, lanean ari da Beasainen Udal-Euskaltegia 1987ko irailaz geroztik. Ordizian prestatutako Euskaltegiak ere, eraren batetako ardura publikodun kudeaketaren bat bereganatu beharko du luzarora gabe. 1981ko konpromezuak, betez doaz, beraz. Goierriko Euskalduntze-Alfabetatzeak profesionalizatuta eta diru publikotik finantzatuta daude hein handi batetan, baina dena ez da hor bukatzen. Alde batetik, Goierri osoa euskalduntzeko helburua oraindik urrun ikusten da eta, bestetik, ez da nahikoa Goierri edo eta agian Euskal Herria bera ere euskalduntzea euskara jakite hutsari dagokionean, baldin eta gero euskaraz bizitzea lortzen ez bada. Eta gaur esan liteke, Euskara jakitea ezinbestekoa dela bizitza euskaraz egiteko, baina jakiteak bakarrik ez duela ziurtatzen euskaraz bizitzea. Aukeren garaian bizi gara eta aukera hori ez da Euskararen aldekoa izango, hala izan behar duela erabakitzen ez badugu eta hori lortzeko bitarteko jakin eta zehatzak jartzen ez baditugu.

5. Eta aurrera begira zer?

Euskararen irakaskuntza bideratu da, arlo akademikoa gehienbat prestatuta dago, metodo ugari eta irakasteknika trebeak hor daude, baina *Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteak* badu oraindik ere zereginik. *Antsotegi* etxeko egiturak Lazkaoko eta Goierriko euskalgintz lanean jarraitu beharra dauka, harik eta eskualde honetako jendeak bere eguneroko bizitza Euskara hutsez egin dezan arte. Laneko Euskara oraindik ia ez da ukitu Goierrin. Administrazioa euskaldundu beharra dago, merkataritza ere bai, industria zer esanik ez; garraioa, gizarteko harremanak, zerbitzuak etab. Horretaranz abiatu beharra dago edo eta bestela gureak laster egingo du. Bide horretan edozein urrats emateko nahiz beste edozein bide berri urratzeko ideia berriak sortu beharra du Goierriko Euskal Eskolak. Arlo akademikoa gaur dagoen bezala egongo zela pentsatzea amets hutsa zen duela hamar urte, baina lortu egin da. Hori, noski, pertsona batzuren ideiek eta diru publikoa ugari sartzeak bihurterazi du egia. Badirudi euskalduntzen eta alfabetatzen diru publikoa laguntzeko ideia onartu samartzat duela Herri honek eta halaber bere ordezkari diren politikoek. Hori bakarrik, ordea, ez da nahikoa. Gaur ametsa dena egia bihurtu beharra dago. Euskal Herria euskalduna izango da ala ez da ezer izango eta, euskaldun izateko, herritarrek euskaraz bizi behar dute jaikitzen direnetik oheratzen diren arte. Eguneroko lana euskaraz egitera iritsi behar da, eta hor dago gure hurrengo erronka, hor Goierriko Euskal Eskolarena eta goierritarrena. Ea bidea asmatzeko eta herritarrak bide horretarat zuzentzeko gai izaten den eta arlo akademikorako lortu ahal izan den finantzaketa-neurria, laneko euskara irakasteko eta erabiltzeko nahiz erabil erazteko ere lortzen den. Diru asko beharko da horretarako, baina inbertsiorik egiten ez den arloan ez da uztarik jasotzen.

Zorionak eta eskerrikasko *Goierriko Euskal Eskola*n lan egin duten eta egiten duten guztiei eta gauza bera finantzaketa-bideak jarri dituztenei. Ea aurrerantzean burutu behar diren proiektuekin ere berdin gertatzen den.

3. DIONISIO AMUNDARAINEN EKINTZA AKADEMIKOKO HITZALDIA

Agur, Lehendakari jauna!
Agur, agintariok!
Agur, jaun-andreok!

Gaur bezalako egunek aukera paregabea eskaintzen digute atzera begiratu, egin dena ikusi eta aurrera begira zer egin ikusteko.

Aukera horretaz baliatuz noakizue, hain zuzen, gure Maizpide honen bihotz-taupadaren berri ematera.

Hasi, euskaltzaindiak orain dela bederatzi urte, 1979an, argitara eman zuen *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian* liburutik hartutako pasarte batez hasiko naiz. Dakizuenez, Liburu hau Euskaltzaindiak berak SIADECO taldeari eskatutako *Euskararen Soziolinguistika Azterketa* ikerketaren laburpena da.

Hona hemen, aukeratutako pasartea:

> «Euskararen hedadura handieneko garaitik (orain hogei mende), higadura eta galerazko prozesu luze baten bu-

ruan, ezin bestean heriotza baizik ezin etor zekiokeela zirudienean, azken hamabost-hogei urte honetan berreskuratze-aldi berri bati ekin zaio; bakarra ez bada ere orain artekoetan sustraizkoena; bizi-nahiak bultzatu du hori».

«Hainbesterainokoa izan da hori, non, historian lehenengoz, berreskuratzea, nolakoaz eta zenbatekoaz, atzerapen eta galera baino garrantzitsuago bait da».

«Euskaldunek sortu duten iraulketaren seinale garbia da guzti hau».

Eta jarraitzen du:

«Berreskuratze honen marka nagusiak, bi alor hauetan nabari dira bereziki: irakaskuntza eta komunikabideetan».

Aurrerago, berriz, irakurtzen dugu:

«Berreskuratzearen beste seinale bat, zera dugu: gazteak eta helduek euskara ikasteko hasia duten ikasketa-langintza, Alfabetatze eta Euskalduntze kanpainen estutik. Historian zehar euskaraz susperraldi bat baino gehiago izan bada ere, oraingo honen neurrikorik ez da itxuraz inoiz ezagutu».

Orduko egoeraren diagnostikoa dira hitz horiek. Liburua ez da, ordea, diagnostiko hutsean geratzen. Euskara berreskuratzeko zein neurri hartu beharko liratekeenaz ere badihardu. Hona ondoren, esaterako, zer dioen Gazteen eta Helduen arteko Euskalduntze eta Alfabetatze mugimenduaz:

«Herriko hizkuntza berreskuratu nahi duten gazte eta helduen kopurua goratuz doa; eta, horrela, 1975-76 ikasturtean 40.000 ingurutara iritsi da.

Mugimendu honek hurrengo urteetan izan dezan bilakaerak eta sail desberdin guztietarako hedatzeak (Zerbitzu-zentruak, Enpresak, Instituzio publikoak) esannahi handia izango du normalizazioak izan dezakeen abiaduran».

«Aurrerapen hau burutu ahal izateko, beharrezkoak dira ondoko hauek: 1) euskara ikastera doazen gazteak eta helduak ugaritzea; 2) irakasbideak hobetu eta standardizatzea; 3) irakaslegoaren prestakuntzan saio gogor bat egitea eta; 4) Herriko erakunde publiko eta pribatuek mugimendu hau ekonomikoki sostenga dezatela».

«Funtsezkoa da mugimendu hau euskararen normalizaziorako».

Gaur pozgarri gertatzen zaigu orain bederatzi urte idatzitako hitz horiek irakurtzea. Garbi uzten bait dute ez dela alferrikakoa izan bederatzi urte hauetan egindako bidea.

Izan ere, gaur askoz ere sendoagoa ikusten dugu Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze mugimendua, bai herriaren eragina dela bide, bai Erakundeek eskainitako laguntzari esker. Irakurri besterik ez dago HABEk eskaini dizkigun datuak:

Iazko ikasturtean, 1986-1987an alegia, 46.437 pertsona helduk 74.488 matrikula egin zituzten guztira, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, eta 13.645.000 ordu alfabetatzeko eta euskalduntzeko.

Beraz, eta Euskal Elkarte Autonomoan bakarrik, 46.437 heldu eta 13.645.000 matrikula-ordu. Hauetara mugatuz, azken sei urte hauetan hiru bider hazi da matrikula-orduen kopurua. Eta guzti hau azpiegitura bati esker: euskaltegiei, irakasleei eta Euskal Erakundearen diru-laguntzari esker, alegia.

Zer esan nahi ote du, ordea, ikasle-kopuru honek guztiak egiaz?

Hona.

Azken batean, zer esan nahi du herria berreuskalduntzeak?

Dudarik ez da, berreuskalduntze honetan giharra eta muina euskaldun peto-petoen hizkera da: euskaldun esatean, hauxe esan nahi da:

— bere bizitza euskaraz egiten duena;
— bere sentimendu sakratuenak euskaraz bizi eta adierazten dituena;
— alboko lagunari, belarriko mi-

nik eman gabe, hizkera (gure kasuan, euskara) txukunean mintzo dena.

Berreuskalduntze-prozesua hazteak, beraz, euskararen gihar den lagun-kopuru hori haztea esan nahi du.

Horiek horrela, zertaraino aldatzen dute, haziz, euskaldun petoen, (gaurko termino diskutigarria erabiliz) euskaldun zaharren kopurua milaka lagun heldu horien ikastorduek?

Jakina, gauza erraza da helburua euskaldun egitea, euskaldun bihurtzea dela esatea. Baina, non dago muga? Noiz egiten da bat euskaldun?

Erreferentzi puntu bat hartzeko, har dezagun EGA lortzea dela euskaldun bihurtzea. Zerotik abiatzen den batek, EGA lortzeko, batazbeste 1500 ikastordu behar dituela aski frogatua du Maizpide Euskaltegi honetan lanean ariko den irakaslegoak. Horiek horrela, urtean 9.000 lagun inguru euskalduntzea lekarke egindako ordu-kopuru horrek.

Ez dakit, egiaz, horrela gertatzen den ala ez; baina, gutxixeago izanda ere konformatuko litzateke bat.

Dena den, gaur Maizpiden hezurmamitutako ametsaren habia izan den Goiherriko Euskal Eskola ere partaide izan da azken urteotako euskalduntzearen bilakaeran: partaide sutsu eta aparteko testigu, esan dezaket harrokeriarik gabe. Eta apal bezain tinko eman dezakegu geure testigantzaren berri. Eta horrelaxe laburtu nahi nuke testigantza hori:

Bat.—Jadanik, euskara ez da lagun bakar batzuk bakarrik ikas dezaketen arazoa; fenomeno sozial eta masibo bihurtua da gaurregun euskara ikastea.

Bi.—Euskara ez da ez-ohizko bidez bakarrik ikas daitekeena:

—garai batean, baserria zen ikasteko panazea: prozesu geldi eta luzea;

—gaurregun, euskaltegia, kalearekin konbinatuz, ikas-zentru bizkor eta azeleratu bihurtu da: jadanik ez da salbuespen bitxi 13 hilabetetan euskara-maila sendoa lortzea.

Hiru.—Euskara ikastea ez da jende-mota bitxi baten arazo: gaurregun motibazio desberdinenek dute sarrera euskaltegian, nagusiena lana bilatzearena bada ere.

Lau.—Hain zuzen, motibazio aipagarriena horixe bihurtu da: lana bilatzea:

—zenbait jenderentzat motibazio bildurgarria;

—egiaz, ordea —nire uste apalean bederen—, errealistena; izan ere,

—gizabanako batzuk idealismoak mugieraz ditzake;

—gizarte oso bat, ordea, nekez mugieraz lezake idealismo hutsak iraunkorki.

Bost.—Eta honetara nator.

—Hizkuntza ikastea ez da jolasa, ez da berriketa.

—Idealismoak bultza dezake bat noizbeinkako oihu edo irrintziren bat botatzera; gizarteaz ari naiz; baina hizkuntzak ikasteak edo eskuratzeak berekin darama-

tzan eskakizunak sendoagoak dira.

Batetik, iraupena behar da; eguna joan, eguna etorri, lanari eutsi behar zaio.

Bestetik gogozko gauza askori egin behar zaio uko.

Hirugarren, hizkuntza ikasteak bakoitzaren izakera ere nolarebait aldatu egiten omen du; baina, nere ustez, ikasketa-garaian berean dator aldaketa hori. Besterekin ordu luzetan bizi beharrak ere aldaketa asko eskatzen ditu: ezin bizi zara zeure erara, aldamenekoari ere begiratu behar diozu e.a. Esan nahi da, pertsonaren aldaketa ez dela ikaste-prozesuaren ondorengoa, prozesuak berak dakarrela aldaketa baizik; eta horrelakorik sumatu izan da Euskaltegian. Besteak beste, honetan: haseran euskara ikasteko motibazioa nahiko kaxkarra izan herri-kontzientziari buruz, eta euskara eskuratu ahala, kontzientzia biziagotuz joatea.

Hitz batetan, hizkuntza ikasteaz gain, heziketa (zentzu zabalean) ere bada, ez-formalki bada ere.

Ondorioz, esan dezaket, gure herri hau berreuskalduntzen aritzeak ondorio aberats eta biziak ekar litzakeela:

—herri hau egiaz euskaldun bihurtzea, batetik;
—sozialki batuagoa izatea, bestetik;
—hizkuntzak berak dakarren batasun erlatiboaz;
—hizkuntza ikasteak jende-multzo handi bati ikaste-prozesuan eskatu dion hezikera sozialaz;
—eta amaren altzotik euskaldun denari, euskaldun berri multzo horrek dakarkion jarrera-aldaketa dela medio.

Jaun-andreok! Bukatzeko, bizpahiru gauzatxo adierazi nahi nizueke gaurko egun honetan urte askotako nire eskarmentuak eta nire ile zuriak ematen didaten eskubidetxoaz baliatuz.

Bat.—Orain dela zenbait urte, dudan jartzen zen Maizpide bezalako Euskaltegi bat betezeko adinako ikasle-kopururik izango ote zen ala ez.

Gaur, ez dago horrelakorik. Halere, duda hori ezabatzearen arrazoia zein den gogoan hartu behar da:

—Administraritzak, herriaren gogoa kontutan hartuz, irakaslegoari gogor planteatu dio euskararen beharra; eta beharrak mugierazten du gizartea.
—Aurrerantzean ikaslerik izango ote da? Herriak eta Administrazioak dute hitza. Irakasleez aparte, sektore asko dago Euskal Herrian euskara behar lukeenik. Zergatik ez sortu horietan euskara eskuratu behar hori?

Bi.—Euskara eskuratzea ez da gauza xinplea.

—Inbertsio handia eskatzen dio gizarteari.

—Ahalegin berezi, sakon eta neketsua eskatzen dio ikasleari; kontutan hartu beharrezkoa da hau.

—Ezin ahaztu lan horretan hurbileko partaide den beste elementua: euskaltegiko arduraduna, irakaslea e.a. Ez da irakasle hutsa, ez da irakasle aseptikoa: helburuak garbi eduki behar ditu; bideak eta bidezigorrak ere bilatuz eta aztertuz joan behar du.

Hiru.—Ahalegin guzti hori ez da, ordea, antzua. Herrigintzan egundoko eskuhartzea da. Adineko jendea alfabetatze-euskalduntzeari zor zaion tokia ezagutu eta eman behar zaio Euskal Herriko gizartegintzan, politikan, ekonomian. Ez da gauza marjinala.

Azken batean, Txepetxek «espazio sinboliko» delako hitzez definitu duena bizkor eta azeleratuki lortzeko lanbidea eta egitaraua da hori; espazio sinbolikoa alegia; hau da: hizkuntza bete-betean bizi duten hiztunen kopurua.

Honelako lanbide eta egitarau batek herri osoa kilimatu beharko luke. Ez da gutxi egin dena. Baina, zerbait gogoz dagienak ez dio ikusten mugarik bere lanbideari.

Ez dakit nire asegaiztasunean jaulki ditudan puntuak egoki adierazi ditudan. Okerrik edo akatsik bada, har itzazue nire bizitzako testuinguruan txertatuz eta orekatuz.

Besterik ez.

4. LEHENDAKARIAREN HITZALDIA

Agur, jaun-andreok:

Oraintxe bi urte hementxe izan ninduzuen euskaltegi-barnetegi honen lehen harria jartzen. Eta hona gaur orduko ametsak egia bilakaturik, Maizpide Euskaltegia eraikia eta ehun ikasleren euskara ikastegi.

Barnetegi hau, alabaina, asmo eta proiektu handiago baten katemaila da.

Batetik, «HABE» egitasmoa jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak, eta proiektu hori sendoagotu nahian dabil, euskararen sustatze-lanetan hiritar helduen euskalduntze-alfabetatzeak duen eskeagatik. Eusko agintarien egitekoa bait da herri-gogo eta egarri horri dagokion mailako erantzuna ematea.

Erantzun zabal honek, euskararen aldeko beste hainbat eta hainbat egitasmorekin egiten du bat, hor daude:

—Eskolak
—Ikastolak
—Euskal Irrati Telebista
—IRALE
—IVAP

Eta irakaskuntza formaletatik kanpo, euskaldunon euskararekiko atxikimendua sakondu eta sustatu nahiz antolatu diren beste hainbat eta hainbat ekintza aipatu beharko lirateke. Hauxe da herri honen Jaurlaritzaren hizkuntz plangintza: euskaraz bizi nahi dugunok eguneroko bizitzarako egiteko guztietan euskaraz bizitzeko egokiera izan dezagun bidea egitea.

Zergatik, ordea, guzti hori? Zerk bultza edo zuzenetsi lezake inbertsio hori guztia?

Jaurlaritzarentzat euskara da aberri-hizkuntza. Euskarak eman die-

zaioke Euskal Herriko biztanlegoari barru-barruko eta hondo-hondoko oinarrizko batasuna. Apustu hau da gurea: euskaraz bizi nahi dugu. Agintariena ezezik, herritarrena ere den apustua, eta hiritarrena den neurrian gaurko eta biharko Euskal Herrian ongi errotuko dena. Gizarte honetako hiritarrek beren harremanetarako euskara erabiltzen duten neurrian, euskaldunon elkarte-bizitza aberatsagoa eta oparoaga izango bait da, nahiko genukeen herri-gogoaren baitan.

Horrexek bultzatu du Jaurlaritza horrelako inbertsioetara. Aberri-hizkuntzatzat jotzea ez bait da kanpaiak ozenki jotze hutsa, baizik eta, egiaz euskaldun guztiona izan dadin bide zehatzak eta bideragarriak jartzea.

Alde horretatik, aipagarria eta aupagarria da helduen alfabetatze-euskalduntze lanean ari izan diren eta ari diren lana. Lan txalogarria. Txalogarria, eta gero eta aurrerago bultzatu beharrekoa: bai azpiegitura-mailan, bai didaktika-mailan. Bultzatu alegia, lan horretan ari den jendeari izerdi berria, nondinahiko haize osasuntsua txertatuz. Hitz batean, gogoa, sua, ametsak areagotuz.

Gizalegeko zaigu gaur bezalako egun batean, helduen euskalduntze-alfabetatzegintzak azken urteotan izan dituen lankide zintzoak gogoratu eta guztioi aitormen egitea. Gure herriak ezagututako ekaitz gogorrenaren erdian ere, aurpegi eman eta lanari etsigabe ekin ziotenei agur eta ohore adieraztea Eusko Jaurlaritzaren izenean.

Agur eta ohore Andoni Urrestarazu «Umandi»-ri, Gasteiztik eskaini zigun metodo berriarengatik. Agur eta ohore Xabier Peñari, Bilbon zabaldu zituen ikastaroengatik. Agur eta ohore Piarres Eyheramendiri, Baionan eginiko lanengatik. Agur eta ohore Elbira Zipitria, Donostian eta Lazkaon ereindako haziagatik.

Eta gaur, helduen euskalduntze-alfabetatzegintzari estuago helduz, agur eta ohore Rikardo Arregi Jaunari. Berak 1966.ean Euskaltzaindiaren babesean Euskal Herriari eginiko dei zabalari erantzunez bait dihardugu oraindik orain. Berak sortutako olatugainak garamatza, «Euskaldunok Euskaraz» lemapean.

Oraindik ez dira Rikardoren euskararenganako gogo-nahiak bete, urrutira ikusteko akalmena zuen Arregi gazteak: euskara gaurko kulturaren egoerak eskatzen duen mailan nahi zuen eta, horretarako, arduratu zen herrietako gazteak, euskaraz alfabetatzen jartzeaz gain, garai hartako gizarte-kezkaz zihardutenliburuak argitaratzeko plangintza egitea.

Oroitza harrigarria benetan Rikardo Arregik bere baitan zuen baikortasuna. Kasik eremu soila zena mintegi bihurtu zuen. Ongi entzuna izan bait zen bere idazlanei zerien oihua. Garai hartako gazteriak Rikardo buru hartua, euskal baratzak ordurarte ametsezinezko lorak ezagutu izan ditu ondoren.

Lehen alfabetatze kanpainaren helburua, euskaldunei beren hizkuntzan irakurtzen eta idazten erakustearena zen. «Euskarak etorkizunik badu, euskaldunen eskutik beharko du» zioen Arregik. Berarentzat euskara zen etorkizuneko hizkuntza, Euskal Herri abertzalearen eguneroko mintzagaia euskaldunen ezpainetan eta lumetan.

Hona hemen alfabetatze kanpainaren lehen aldiko helburuaren berri:

«Hizkuntza batek iraunen badu, benetako tresna izan behar du pentsamenduaren mintzabide bezala eta, are gehiago, herri baten pentsamoldeak nortasunik galduko ez badu, bizitzaren alderdi guztitan bere hizkuntzaz baliaturik bakarrik lor dezake».

Lehendakari honek gonbite apala egin nahi lizueke ekintza akademiko honetan; irakur itzazue arretaz Rikardo Arregiren idazlanak. Murgil zaitezte bere artikuluen edukietan barna.

Izan ere, esaldi arrunt batez esanda, Rikardo bizirik dago. Modu askotara bizirik; baita egiten digun faltagatik ere.

Horregatik, Maizpide Euskaltegi honek, zabaldu berria izanik ere, ongi errotuak ditu bere sustraiak. Lan urteen joanari darion giza-eskarmentuaz blai eginik ditu bere hormak, baita bertako irakasleen lan modua ere.

Eskerrak, batez ere, Aita Beneditarrak, herri honen izenean, zuen ekimena eta jakituria euskarari, euskal kulturari eta herrigintzari eskaini dizkiozutelako. Herritarrek horrela behar zutenean, komentuko ateak zabaltzen asmatu zenutelako. Zuen pozetarako, Lazkao gaurregun helduen euskalduntze-alfabetatze gintzaren hiriburu eta erreferentzi puntu saihetsezina da. Mila esker.

Ezin utzi aipatu gabe, jarraian, berrogeitahamargarren hamarkadatik hona lan horretan ari izan den euskaltzale andana ere. Garai latz haietan, geroago hainbat eta hainbat erakundetan eta euskara-zerbitzuko postuetan ariko zena prestatzen ari izan zirenak. Gaurregun, euskara-mailan, gero eta jende prestatuagoa, trebetuagoa prestatzekotan alfabetatze-euskalduntze lanean burubelarri ari direnak: HABE mailan dela, Udal Euskaltegietan, herri-ekimenez sortutakoetan. Ezin utzi, azkenik, aipamen berezi bat egin gabe, irekitzen dugun barnetegi honetan, bertako langile-azpiegitura moldatzen, bereak eta bost eman dituen bertako irakaslegoa eta langilegoa.

Nire txalorik beroenak, beraz, guztiei, urte horietan zehar, euskara ikasten ari izan direnak ahaztu gabe, noski.

Eta nire hitza ematen dizuet guztioi, nire esku dagoen heinean, euskararen aldeko bultzadarik haundiena emateko prest nauzuela.

Ezin ahaztu, ordea, euskara aurrera atera, herriak aterako duela, hitz egiten duen herriak. Baikortasunari uko egin gabe, neure kezka hori aitortu nahi nuke hemen. Ez da aski gogo ona aitortzea eta oihukatzea. Egiazkoa izango bada, eraginkorra izan behar du. Horixe nahi nuke nik eskatu gaur hemendik: ekiogun guztiok, nork bere mailan, euskara bizi-arnasa bihurtzeari.

Utz iezadazue, bukatzeko, Rikardo Arregiren artikulu esanahitsuaren zati bat gogora ekartzen. Gaur bertarako idatzia dagoela bait dirudi. Entzun arretaz mesedez 1969an (mila bederatzirehun hirurogeita bederatzian) zeruko argian argitara zuena.

«Eguneroko borroka isila, izen handirik gabekoa, hori da Euskal Herriaren eustailea. Gizon eta gazte horien izenak ez dira gelldituko, seguru asko, Euskal Herriaren historiaren orrietan; baina horiek egingo dute posible, inork baino gehiago, Euskal Herriak historia izaten segitzea. Borroka honek, euskalgintzarenak, neke asko eskatzen du, diruarena, denborarena... Nola ahaztuko ditugu Patxi, Iñaki, Jose Ramon, Juan Martin?

Nere herrian, gainera, euskaltzale langileek, zaharrak eta gazteak, elkarre-

kin egiten dute lana, modu askotara pentsatu arren(...). Lanak sortzen du batasun-sena, herriak, euskalgintzan lan egiten duenak noski, batasuna maite du ekintzan. Erasoaldian batasun honek bakarrik salba gaitzake».

Rikardo Arregiren hitzak, ez ditzala esaerak dioen bezala, haizeak eraman.

Agiriak ematea

Eta aitortza hauen lekuko bi agiri banatuko ditut jarraian.

Lehena, Aita Beneditarrei. Horrela dio:

«Zuei, Aita Beneditarrei,
euskara-irakaskuntzaren
hasieran abiada,
geroan habia
eta beti habea.
Esker mila eta ohore.»

Eta, ondoren, Arregitarrei, anaiaren lanaren lekuko:

«Zuri, Rikardo Arregi,
euskara-irakaskuntzaren
gau ilunean izar berri,
egunsenti berrian goi-argi.
Esker mila eta ohore.»

«MAIZPIDE», NUEVO EUSKALTEGI PARA LA ENSEÑANZA DEL EUSKARA A ADULTOS EN REGIMEN DE INTERNADO

Lazkao, en el corazón del Goierri guipuzcoano, es el pueblo que acoge al primer Euskaltegi internado construido como tal por HABE, ente autónomo del Gobierno Vasco para la alfabetización y euskaldunización de adultos. Este nuevo Euskaltegi viene a sumarse al Euskaltegi de HABE de Hondarribia, que desde 1981 funciona asimismo en régimen de internado.

MAIZPIDE, nombre del nuevo Euskaltegi de Lazkao, se incorpora a la amplia red de centros de enseñanza que, tanto en la Comunidad Autónoma Vasca como en Navarra e Iparralde, trabaja en la alfabetización en euskara de los adultos que ya conocen el idioma y en la euskaldunización de los que quieren aprenderlo. Durante el curso 1986-1987, y solamente en la Comunidad Autónoma Vasca, funcionaban 44 Euskaltegis públicos (4 del mismo HABE y 40 Euskaltegis municipales) y 20 Euskaltegis homologados.

El profesorado de Maizpide, forjado a lo largo de varios años de dedicación ilusionada a la enseñanza del euskara, forma parte del amplio colectivo de profesionales que en el curso 86-87 se acercaba en la Comunidad Autónoma Vasca al número de 2.000:200 en Alava, 700 en Guipúzcoa y 1.000 en Vizcaya.

La apertura de este nuevo centro de HABE supone un nuevo hito en la euskaldunización y alfabetización de adultos de Euskadi y una nueva realidad al servicio de los 60.000 adultos que están aprendiendo y perfeccionando el idioma que caracteriza y da nombre a nuestro pueblo. Euskal Herria (Pueblo del Euskara).

El presente artículo es una especie de crónica donde se recogen los detalles más significativos del día de la inauguración del nuevo Euskaltegi —23 de abril— y de la semana cultural que, por ese motivo, se organizó en torno a esa fecha. Además, en él se recogen los cuatro documentos siguientes:

1. Documento que se repartió en la rueda de prensa que se dio en Maizpide el 19 de abril.
2. Conferencia dada por Andoni Sarriegi el 19 de abril: «Historia de la Euskal Eskola (Escuela Vasca) del Goiherri».
3. Conferencia dada por Dionisio Amundarain, Director de Maizpide, el día de la inauguración.
4. Conferencia del Lehendakari del Gobierno Vasco, Sr. D. José Antonio Ardanza, el día de la inauguración.

«MAIZPIDE», A NEW BOARDING CENTER FOR THE TEACHING OF BASQUE TO ADULTS

Lazkao, in the heart of the Gipuzkoan Highlands, is the town that welcomes the first Euskaltegi for Boarders built by HABE itself, Autonomous Body of the Basque Covernment for the Literacy and Basquisation of Adults. This new Euskaltegi joins the HABE Euskaltegi in Hondarribia, which is run as a boarding school as well since 1981.

MAIZPIDE, name of the new Euskaltegi in Lazkao, comes into the wide net of centres for the teaching of euskara, which in the Basque Autonomous Community as well as in Navarre and in the Northern part of the Basque Country, works on the literacy in euskara of adults already in possession of the language, and on the basquisation of those who want to learn it. During the 1986-87 school year, and only in the Basque Autonomous Community, there were 44 Public Euskaltegis (4 from HABE itself and 40 Municipal Euskaltegis) and 20 Homologated Euskaltegis working.

The staff of MAIZPIDE, forged during several years of hopeful dedication to the teaching of euskara, is shaped as part of a wide group of professionals that was nearing the two thousand in the Basque Autonomous Community: over 200 in Araba, 700 in Gipuzkoa and about 1000 in Bizkaia.

The present article is a sort of chronicle which collects the most significant details of the Opening Day of the New Euskaltegi —april 23— and of the cultural week organised for the same reason and around that very date. Besides that it offers the following four documents:

1. Document handed out in the press conference held in Maizpide on april 19th.
2. Lecture given by Andoni Sarriegi on april 19th: «History of basque schooling in Goierri.»
3. Lecture given by Dionisio Amundarain, Headmaster of Maizpide, on the opening day.
4. Lecture by the President of the Basque Covernment, Mr. José Antonio Ardanza, on the opening day.

«MAIZPIDE», UN NOUVEL EUSKALTEGI POUR L'ENSEIGNEMENT DE L'EUSKARA A ADULTS EN REGIME D'INTERNAT

Lazkao, au coeur du Goierri Guipuzkoan, est le village qui reçoit le premier Euskaltegi Internat construit comme tel par HABE, institution autonome du Gouvernement Basque pour l'alphabetisation et la rebasquisation des adults. Le nouvel Euskaltegi vient s'ajouter a l'Euskaltegi de HABE, qui fonctionne à Hondarribi depuis 1981, également en régime d'internat.

MAIZPIDE, nom du nouvel Euskaltegi de Lazkao, s'incorpore à l'ample réseau de centres d'enseignement du Basque qui, tant dans la Communauté Autonome Basque qu'en Navarre et en Pays Basque Nord, travaille à l'alphabétisation en Basque, des adults qui savent déjà la langue et a la rebasquisation de ceux qui désirent l'apprendre. Durant le cours 1986-87, et seulement dans la Communauté Autonome Basque, fonctionaient 44 Euskaltegis Publis (4 de HABE lui-meme et 40 Euskaltegis municipaux) et 20 Euskaltegis homologués.

Le professorat de Maizpide, forgé tant au long des nombreux annés dédiés dans l'exaltation à l'enseignement du Basque, fait partie du large collective de professionnels qui pour l'année 86-87 s'approchait de 2.000 dans la Communauté Autonome Basque: quelques 200 en Alava, 700 en Gipuzkoa et 1.000 en Bizkaia.

L'ouverture de ce nouveau centre de HABE marque une nouvelle étape dan la rebasquisation et l'alphabetisation des adults d'Euskadi, et une nouvelle réalité au service des 60.000 adults qui apprennent et perfectionnent la langue qui caracterise notre peuple et lui donne son nom: Euskal Herria, le Pays Basque, le Peuple Basque.

Cet article est une sorte de cronique ou sont recueillis les plus importants détails de la journée inaugurale du nouveau euskaltegi —le 23 avril— et de la semaine culturelle qui, pour ce motif, fut organisée autour de cette date. Il recueille également les quatre documents suivants:

1. *Document qui fut distribué pendant la conférence de presse qui eut lieu à Maizpide le 19 avril.*
2. *Conférence prononcée par Mr. Andoni Sarriegi le 19 avril: «Histoire de l'Euskal Eskola (Ecole Basque) du Goierri».*
3. *Conférence prononcée par Dionisio Amundarain, Directeur de Maizpide, le jour de l'inauguration.*
4. *Conférence du Lehendakari du Gouvernement Basque, monsieur José Antonio Ardanza, pendant la Journée Inaugurale.*